

Euskarazko Windows 98 eta Internet Explorer 4.0 nabigatzailea salgai daude

Xuxen II euskarako zuzentzaile ortografikoa Interneten eskura, dohainik

Euskarazko Microsoft Windows 98 sistema eragilea eta Internet Explorer 4.0 nabigatzailea dagoeneko salgai dira, bere garaian EAEko Administrazioek eta Microsoft etxeak sinatutako itunari esker. Bestalde, Xuxen II euskarako zuzentzaile ortografikoa jada eskura dago Interneteko amaraunean, doan.

Gorane Agirre / Bilbo

JOSUNE ARIZTONGO EAEko Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta Karmelo Arzelus Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordeak euskaraz ekoiztutako software berria aurkeztu zuten atzo. Baita datorren urteko udan kalean izango den Office 2000 ere.

Euskaraz landu den software berri honek euskararen normalizazio prozesuan duen garrantzia nabarmendu zuen Ariztondok. Zentzu horretan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak euskararen injenieritza industria bultzatu beharra aurriztuen duela gogorarazi zuen.

Ariztondok adierazi zuen, «egun eta normalizazioa helburu izanda, sistema eragilea eta oinarriko software euskaraz izateko gure hizkuntarentzat garrantzi itzela du, tresna hauek erabilera arruntekoak izateaz gain teknologi berrien munduan sartzeko aukera eskaintzen baitute».

Bere garaian EAEko Administrazioek (Eusko Jaurlaritza, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioak eta EUEDEL) eta Microsoft informatika etxeak adostu zuten ituna medio, euskarazko Windows 98 sistema eragilea eta Internet Explorer 4.0 nabigatzailea dendetan dira dagoeneko. Egitasmo horren xedea euskara erabilerako informatikan sartzea eta euskarari teknologi berrien alorrean barneratzeko parada ematea da, atzo azaldu zuten.

Lehenengo software honek 80,5 milioi pezetako (20 milioi libera



Windows 98 euskarazko produktuen aurkezpena.

XOUSE SIMAL

inguru) aurrekontua izan du. Dagoeneko, merkatal gune haundietan eros daitekeen software honek hiru prezio ezberdin ditu: batetik, Windows inoiz erabili ez dutenentzako salneurria 30.000 pezetakoa izango da; bestetik, bertsio zaharra dutenentzako prezioa 15.000 pezetakoa izango da eta azkenik, Windows 98 gaztelarazko bertsioa duenarentzako euskarazkoa hartzeagatik materiala eta bidalketaren kostua eginda lortuko du euskarazkoa.

Bestalde, aipaturiko akordioa medioa euskaraz egindako hurrengo softwarea kalean izango da datorren udan, orduan jarriko baitute salgai Office 2000. Microsoften sorta berri honek, besteak beste, euskarazko Word idazketa programa, Excel kalkulo orriak eta Outlook informazio kudeaketarako programa hartuko ditu bere baitan.

Xuxen II Interneten doan. Era berean, Xuxen II zuzentzaile ortografikoa berria aurkeztu zuten atzo. Zuzentzaile hori doan dago eskuragarri ondorengo interneteko helbidean: @www.euskadi.net/euskara_hizt. Xuxen II-k euskaraz idatzitako testuen akats ortografikoak antzeman eta zuzentzen ditu. Era berean, Euskaltzaindiak 1998ko uda arte emandako arau guztiak ezagutzen ditu.

Zuzentzaile hori Hizkuntza Politikarako Sailordetzak bultzatutako hitzarmen baten baitan egin da eta EHUko Informatika

Fakultateko IXA taldeak egin du UZEI eta Hizkiarekin lankidetzan.

Ondo ibiltzeko, Pentium bat eta 32 MB-ko memoria behar dira eta Windows eta Office 97rako balio du. Ordenagailuan zuzentzailea kargatu ondoren, zuzentzaile dokumentua idazteaz batera egin nahi izanda, euskara aukeratu behar da dokumentuaren hizkuntza gisa. Tresnak menuan; gainerakoa Officeren mekanismoek egingo dute. Jadanik eskura du informatika erabiltzaile orok zuzentzaile berria. X

Bi lagun hil ziren atzo, Legution izandako auto istripu larrian

■ *Hiru autok elkar jo zuten Arabako herri horretan izandako ezbeharrean*

Erredakzioa / Gasteiz

BI LAGUN hil ziren atzo Legution (Araba) izandako errepide istripu larrian. Eusko Jaurlaritza eta Herriaritzako Sailak emandako informazioaren arabera, istripua eguerdiko 14:30etan gertatu zen, N-240 errepidean Legutio parean.

Ezagutzen ez diren arrazoiak medio hiru autok, Burgoeko Scania kamioi bat, Bilboko Ford Fiesta kotxea eta Bartzelonako Ebro furgonetan elkarrekin jo zuten. Txokearen ondorioz, Ebro furgonetan zihozten bi lagunak istripua gertatu eta berehala hil ziren.

Sorospen taldeez gain, suhiltzaileen lana beharrezkoa izan zen kotxe barruan geratu ziren bi lagunak bertatik ateratzeko. Albiste hau idazteko orduan, oraindik identifikatzeke zeuden bi hildakoak.

Istripuaren ondorioz N-240 errepidea itxita egon zen eguerdi partean, eta horren ondorioz kotxe ilara luzeak sortu ziren. Laurak aldera Ertzaintzak karril bat zabaldu zuen. Bi ordu beranduago erabat irekita geratu zen errepidea.

Atzo goizaldean ere, hainbat istripu izan ziren Euskal Herriko errepideetan. Goizeko orduetako hotzak eragina izotz plakak ugariak izan ziren errepideetan. Horren ondorioz istripuak ugariak izan ziren, baina gehienak txapa kontuak besterik ez zituzten eragin. Datozen egunetarako ere, izotza medio, kontuz ibiltzeko deia egin dute errepide arduradunek. X

Itzularoko ehizan 4.000 txori harrapatzeko proposamena onartu dute Nafarroan

Ingurugiro Kontseiluak otsailaren 15etik martxoaren 15era emango du baimena

Europa Press / Iruñea

NAFARROAKO Ingurugiro Kontseiluak atzo adierazitakoaren arabera, aurten itzularoko ehiza egin ahal izango da Nafarroan. denboraldia zabalduko da otsailaren 15ean eta martxoaren 15era bitartean egongo da zabalik. Bitarte horretan 250 ehiza postu baimenduko dituzte, 4 uso ehizatu ahal izango dira pertsona bakoitzeko egunero, eta denboraldian 4.000 txori ehizatu ahal izango dira.

denboraldi horretan ehizatze baimenak lortzeko epe bat izango da, baina epe hori amaitu baino lehen ehiza postu guztiak

agorzen badira, ez dira gehiago egongo, nahiz eta epea oraindik ez amaitu. 250 postu horiek onatuko dira, beti ere, arriskuan jartzen ez badituzte gainontzeko txorien espezieak.

Ehiza postu bakoitzak eramango du egutegi bat, eta egunero idatzi beharko da postu horretara joaten den pertsonaren izena eta ehizatu dituen usoen kopurua. Informazio hori Nafarroako Ingurugiro departamentura bidali beharko da, eta departamentu horrek azterketa egin dezake hor idatzitakoa benetazko informazioa den baieztatzeko. postuetako kontrola Guardia Zibilaren bitartez egingo da.

Maiztasunez ibiliko dira postuetatik, Ingurugiro departamentuaren arabera, kontrola handia izan dadin.

Porposamen hori asieran Ehiha Aholkularitza kontseiluak egin zuen. Hasierako proposamenean eskatzen zen 800 ehiza postu egotea. Gobernuaren hasierako porposamenean, berriz, 250 postu egotea porposatzen zuen.

Azkenik, departamentuaren proposamenean 250 ehiza postu onartu ditu. Botua emateko orduan, 10 boto aldeko, bi kontrako eta beste bi abstentzio izan zituen. Ingurugiro departamentuaren arabera, onespina lortu du proposamenean. X

Euskarak osasuna izan dezan larunbatean denok Sadarrera XXI. mendeko akordioa

bai euskarari kanpainaren barne eginen den ekitaldira.

NAFARROAKO *ika*